BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4345

AGINDUA, 2013ko uztailaren 17koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, «Sestaoko Txabarri BIA-ko 1 UE Urbanizatzeko Jarduketa-Programa, 2. fasea» izeneko proiektua burutzeko desjabetu behar diren ondasunak eta eskubideak hartu aurreko aktak egiteko egunak adierazten dituena

Bizkaiko Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2010eko irailaren 14koan, «Sestaoko Txabarri BIA-ko 1 UE Urbanizatzeko Jarduketa-Programa, 2. fasea» delakoaren espedienteari behin betiko onespena ematea erabaki zuen.

Enplegu Eta Gizarte Politiketako Sailaren 2013ko otsailaren 15eko Aginduz, hasiera eman zitzaion «Sestaoko Txabarri BIA-ko 1 UE Urbanizatzeko Jarduketa-Programa, 2. Fasea» proiektua burutzeko hartu beharreko ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzeari.

Jendaurrean jarri ondoren, arauzko izapidea baita, Jaurlaritzaren Kontseiluak ondasun eta eskubideak lehenbailehen hartu beharrekoak direla deklaratu zuen 2013ko ekainaren 4ko 359/2013 Dekretuaren bidez, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ondorio horretarako, honekin batera doan zerrendan agertzen diren ondasun eta eskubideen titularrei dei egiten zaie, aipatutako egun eta orduan, eta Sestaoko Udalera bertaratu ondoren, ondasunak eta eskubideak hartu aurreko aktak egiteari ekin dakion, eta, hala badagokio, lurrak formalki hartzeari ere bai. Interesatuek hala eskatuta, beharrezko bada lur horietara bertara ere joan daitezke.

Interesatuek eurek edo beren izenean jarduteko behar bezala baimendutako ordezkariak bertaratu beharko dute egintza horretara eta aurkeztu beharko dituzte beren titulartasuna egiaztatzen duten agiriak (notario-eskriturak, eskritura pribatuak, Jabego Erregistroaren egiaztagiriak edo informazio-oharrak, etab.), bai eta bere eskubideak egiaztatzen dituen beste edozein agiri ere. Bidezko baderitzo eta bere kontura, perituak eta notario bat ere eraman ahal izango ditu lagun.

Halaber, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Arautegiaren 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek eta aipatutako zerrendan agertu ez diren gauzekiko edo ekonomia eskubideen titularrek bidezko deritzen alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, Aurreko Aktak egiteko adierazitako egunera arte eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Etxebizitzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzaren bulegoetan (Kale Nagusia 85, 6.a - 48011 Bilbao), hartu beharreko ondasunen eta eskubideen zerrenda egitean egin diren akatsak konpontzekotan soilik.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 17a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.

EGITASMOA : «SESTAOKO TXABARRI BIA-KO 1 UE URBANIZATZEKO JARDUKETA-PROGRAMA, 2. FASEA»

Titularraren izen-abizenak eta helbidea	Finka	Azalera	Katastroko datuak	Aktak egitea 2013. urtea		
		Desjabetzea	Zenb. finkoa	Hila	Eguna	Ordua
Juan Herrero López Nikolas Ormaetxea 6 – Erdisotoa 48910 Sestao - Bizkaia	19-SS	Nikolas Ormaetxea kalea 6.eko bizitegi-erabilerarik ez duen erdi-sotoko lokala (banatu gabe), eraikinik gabeko 29,12 m^2 ko lurra, eta osagai komunen %13,39	U0138271U	Iraila	24	9:30
Joaquín Calvo Codesal, Mª Angeles Travieso González. Nikolas Ormaetxea 6 – Erdiko erdisotoa 48910 Sestao - Bizkaia	19-SS-Centro	Nikolas Ormaetxea kalea 6.eko erdi-sotoko etxebizitza, eta osagai komunak %11,62	U3049481A	Iraila	24	10:30
Isaac Losada Rodríguez, Marina Gil Ortega. Nikolas Ormaetxea 6 – Behea ezk. 48910 Sestao - Bizkaia	19-Bajo Izda.	Nikolas Ormaetxea kalea 6.eko behe-solairuko ezkerreko etxebizitza, eta osagai komunak %12,41	U3049481A	Iraila	24	11:30
Eugenio Vega Corzo, Mª Luisa Novo Ansean. Eugenio Vega Ramón, Valeriana Corzo Castaño Nikolas Ormaetxea 6 – Behea esk. 48910 Sestao - Bizkaia	19-Bajo Dcha.	Nikolas Ormaetxea kalea 6.eko behe-solairuko eskuineko etxebizitza, eta osagai komunak %12,60	U0138273N	Iraila	24	12:30
Antonio Navas García, Ana Rosa García Monedero. Nikolas Ormaetxea 6 – 1. ezk. 48910 Sestao – Bizkaia Bilbao Bizkaia Kutxa	19-1º Izda.	Nikolas Ormaetxea kalea 6.eko 1.ezk. etxebizitza, eta osagai komunak %12,41	U3049480P	Iraila	25	9:30
José Vinagre Rodriguez, Ceferina Fernández Arias. Nikolas Ormaetxea 6 – 1. esk. 48910 Sestao - Bizkaia	19-1º-Dcha.	Nikolas Ormaetxea kalea 6.eko 1.esk. etxebizitza, eta ganbarako 1/6	U0138275G	Iraila	25	10:30
Eugenio Vega Corzo Nikolas Ormaetxea 6 – 2. ezk. 48910 Sestao - Bizkaia	19-2º-Izda.	Nikolas Ormaetxea kalea 6.eko 2. ezk. etxebizitza, ganbarako ½ eta osagai komunak %12,41	U3049482Y	Iraila	25	11:30
Juan Carlos eta Mercedes González Torres. Nikolas Ormaetxea 6 – 2. esk. 48910 Sestao - Bizkaia Bilbao Bizkaia Kutxa	19-2º Dcha.	Nikolas Ormaetxea kalea 6.eko 2. esk. etxebizitza, ganbarako 1/6 eta osagai komunak %12,60	U0138274V	Iraila	25	12:30